

• MATTIN •



Batasuna indartuz

• RAFA DIEZ USABIAGA •

[LAB-EKO IDAZKARI NAGUSIA]

Gaur egun esanguratsu bat da Lan Munduarentzat, hots, Gizarte osoarentzat. Maiatzaren Lehenak esanahi berezi eta aberatsa dauka giza justiziaren alde, langileen alde, desbabestuen alde, aldaketa sozialaren alde dagoen edonorentzat. Batzuentzat, Maiatzaren Lehenak, «langileen jaia» da. Zoritxarrez, giza bidegabekeria dagoen bitartean, gaurko eguna ezin da jaia izan. Euskal Herriak pairatzen duen egoera sozioekonomikoaz behin erreparatuz gero, gaurko egunak *Borroka Eguna* izan behar du, ezinbestez. Zorionez, gure Aberrian egoera berri eta itxaropentsu batean gaude eta lasaitasun —eta irmotasun— osoz egin ditzakegu egin beharreko urratsak, gauzak azken muturreraino eraman gabe. Momentuz, behintzat.

Egungo egunean dauzkagun premiarik handienak denon ezagunak dira: enplegua zabaltzeko ezinbestekoa den 35 orduko lan astea, eta erromeskeria, prekarietatea, leuntzeko, Giza Soldata duin bat. Biak, Gizarteak, estu eta larri eskatzen ditu. Lana dutenak ezin dira arduragabe egon hainbeste injustiziaren aurrean. Eta kinka larrian daudenek derrigorrezkoa daukate borroka.

Gaurko eguna, Borroka Eguna izateaz gain, *Indarra Metatzeko Eguna* aproposa da. Izan ere, lehen aipatu bezala, egoera historiko batean gaude, zeren Lizarra-Garaziko Akordioak bide berriak eta indartsuak ireki baitu Euskal Gizartearen Gehiengoaren pozerako. Akordio hau sustatzea langileen eta desbabestuen alde aritzea da, zeren Akordioaren bidez Euskal Langileak beharrezko duen botere politiko handiagoa lortuko baitugu.

Gaurkoak, bestaldetik, *Hausnarketa Eguna* izan behar du. Gaur euskal langileen borroka hasiera besterik ez da izango, ez gaitzezen engaina. Egungo helburu nagusiak lortzeko, gure borroka indartzen joan behar dugu. 35 orduko lan astea eta Giza Soldata duina, Kapitalari erauzi behar zaizkio zeren jakin ondo baitakigu bere borondatez ez duela inoiz ezer ematen. Gaurkoa abisu serio bat izango da. Argi eta garbi utzi behar dugu gure asmoa. Langabezia murrizteko, denbora igaro ahala desagertu arte, erromeskeria eta giza bazterketa desagertarazteko neurriak hartu behar dira. Bestela, langileok gure indar eta amorru justu guztia erabiltzeko prest gaudela argi eta garbi geratu behar du gaur bertan.

Gaurtik aurrera indar metaketaz, borroka ideologikoz, jarraitu behar dugu. Datorren Maiatzaren 21a zita garrantzitsu bat izango dugu, Patronalak bere joera bidegabea mantentzen jarraitzen badu, Greba Orokorra egiteko deia zabalik dago Euskal Gizarte osoarentzat. Datu itxaropentsu eta adiezgarri bat daukagu egitasmo honetarako, Euskal Sindikalismoak lortu duen batasuna Historia Modernoaren handiena da, zeren hasierako deialdia LABek, ELAk, EHNEk, HIRUK, STEEk eta ESK-k egin baitzuten.

Egun horretan, egun historiko bat izango da, ez bakarrik lorturiko batasunagatik bakarrik, baizik eta langileek eta, orokorrean, Gizarteak ipinitako indarragatik. Gaur dei bat luzatzen diogu Euskal Gizarte-ari esandakoaz elkartasunezko hausnarketa serio bat egin dezala. Egun horretan, parte hartzeak ahalik eta handiena izan behar du, Euskal Gizarte justuago baten al-

deko aurrerapauso esanguratsu eta atzeraezin bat emateko. Guztioak gaude inplikaturik borroka honetan. Ez bakarrik langabetuak, guztioak. Gure esku dago dena.

Hau guzti honengatik, LABek Euskal Gizarte osoari egiten dio gaurko Maiatzaren Leheneko ekitaldian parte hartzeko deia, inolako bazterketarik gabe. Guztioak langabetuei eta egoera larrian bizi direnei elkartasuna eta egoera aldatzeko gure asmo tinkoa adierazteko. Bestaldetik, esateko Neoliberalismoak egin nahi dituen erasoak ez ditugula onartuko.

Baina badugu gehiago ere. Batetik, euskal esparru sozioekonomiko bat behar du gure Herriak, etorkizunean Euskal Egitura Ekonomikoa gure beharren arabera eraikitzeko, hots, Euskal Sektore Publiko sendo bat behar dugu, garapena, enplegua bultzatzeko, inguru ekologiko sustatzeko eta arlo ekonomiko guztiak (industria, nekazaritza, arrantza, zerbitzuak...) babesteko, zaintzeko eta garatzeko. Hau guztia behar-beharrezkoa da Euskal Erakuntza Nazionalerako.

Eta geure baitan eduki behar dugu lan harremanetarako esparru baten premia. Behar-beharrezkoa daukagu lan politika, lan osasuna eta gizarte babes propioak garatzeko.

Egin dezagun gaurkoa Justizia Sozialaren aldeko benetako Borroka Eguna, adieraz dezagun Euskal Langilearen indarra eta asmo tinkoa, justiziaren alde, langileen alde, bazterkeriaren aurka. Azken finean, Euskal Herriaren alde. Eta adieraz dezagun geure baitan darabizko ideia atzeraezina: horrela jarraituko dugu Euskal Herria Indipendente, Sozialista eta Euskaldun batean bizi arte.

... OLATZ OSA



Denda-ostea

Donostiako Amara auzoa. Goizeko hamaikak jotzear. Banoa felix-felix ordenagailuko disketea hartu eta grafiko batzuk kolorez inprimi diezazkizaten denda baten bila. Zerbitzu hori eskaintzen duen bideojoko denda bat ba omen.

Nire pausoak harat. Denda handia, modernoa, bideojoko, konsola eta antzekoz lepo. Mostradoreko mutilari hurbildu natzaio eta baietz, nahi dudakolorean inprimatuko didatela nire lana.

Berarekin denda-ostera pasatzeko gomita luzatu dit.

Denda-ostea. Atalasea zeharkatu eta, gerra. Eszenatokian oraindik kokotsean bizarrak gabeko dozena bat mutil gazte edozer eta edozein suntsitu, desegin, jipoitu edota hiltzeko prest, bakoitza bere armari, ordenagailu pantailari so. *Coca cola* eta *Lucky* paketeak. Bideojoko dendaren jabea, komandantea bailitzan, soldadu gazteek emandako mila pezetakoaren trukean gazteen dohain belikoak fintzeko bideojoko gero eta arriskutsuagoak konektatzen. Ke arteko goizean tiro hotsak, misilen ziztuak, zaurituen garrasiak, hildakoak, eta misilen ziztu gehiago, tiroak, zaurituen oinaze bortitzagoak eta hildako andana. Eta Olatz kantoi batean, flipatuta, bere lana koloretan inprimatzen.

Kosovo. NATOren laugarren akats aitor-tua. EEBBetako Denver hiriko sarraskia. Getxoko mutil jipoitu eta eraila. Amarako bideojoko denda. Zinez, ez dut batetik bestera alde handiegirik somatzen. Lehenengo entrenatu, ohitu, zaurituen oinazeaz gozatu, garaile eta garaituaren, on eta txarren kultura zabaldu eta barneratu, eta ondoren ikasitako guztia exekutatu eta egindakoa justifikatu, noski.

Denda-ostetik atera eta bi emakume (ama edo izeba agian) haurrentzat bideojokoak aukeratzen. Bistan da, antimilitarismoa ez da negozioa. A! Baina ez daukat kexarik, nire lana oso kolore politen inprimatu didate.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Etxeko nagusia

■ Administrazioak ordaindu egingo dizkio *Egin-i* diru-zorrak. Ez da txarra, Gobernuarena. Bai baitaki dirua epaitegiak izendatutako administradoreak hartuko duela, eta honek zor edo isunen bat aitzakia itzularaziko duela. Amorrua ez du gehiegi handitzen erabakiak, batez ere pitxerra lehendik ere gainezka dagoelako. Bitxia da aztertzea, ordea, ikuspegi juridiko batetik, Gobernuak, epaile batzuen esana betez, beste epaile batzuek «terrorista erabakitako enpresa bati» dirua emanen diola. Absurdua dirudi, baina berdin dio. Estatuak kontrahesanekin gosaltzen du, absurduekin bazkaltzen eta zentzugabekeriarekin afaltzen. Eta Arrazoiarekin oheratzen da, honek nahi ez badu ere. Indarraren monopolioa bai baitu Estatuak, hori du etxeko morroi, eta arrazoiak kolpeka makurrarazi behar badu ere makurrarazten du. Eta gero bortxatu.